

**OGPEuskadi**

konpromiso

**propuestas normativas**

**HERRITARRENAK**

#4

---

# **Pertsona adituekin saioa**

**Ondorioak**

*2022/06/17*

## Adituekin saioa. Ondorioak

### 1. Ekarpenen laburpena

#### Miguel Ángel Gonzalo

- Prozesua hasi aurretik, beharrezkoa izango litzateke **ez onartzeko arrazoen sailkapen bat duen gida edo informazio-orri bat izatea**. Batzuk oso zabalak dira eta zalantzak sortzen dituzte, definizio juridiko oso zehaztugabeak dakartzatelako. Landu ezin diren gaiei arreta berezia eskaintzea.
- Kasu gehienak errailetik ateratzen dira, agenda politikoa/parlamentarioa eta Batzorde Sustatzaileen agenda bat ez datozelako. **Eragin-jarduerak nola hobetu** aztertu beharko litzateke.
- Baldintza teknikoei dagokienez, **sinadura-bilketa arautzen duen araudia zaharkitua dago**. Gaur egun garatzen ari den Osasuneko HELan (prozesuan) erabilitako ereduak Hauteskunde Batzorde Zentralaren oneritzia du <https://firma.recuperatusanidad.org/>
- **Formalki txukun laguntzea**, proposamenak agenda-interesekin edo veste motatako interesekin ez kutsatzeko. Ideia ez xurgatzea/bereganatzea, baizik eta prozesuan laguntzea.
- Legegintzako Herri Ekimena ez da beti erantzunik egokiena/errazena/eraginkorra. Beste erantzun batzuk daude. Deliberazioa nola edo hala has dadila, eta administrazioak berak bidera dezala hura instituzionalizatzeko biderik onena. Parte-hartze informala formala bihurtzea.

#### Yanina Welp

- **Laguntza administratibo eraginkor** baten inguru lan egitea.
- **Akatsak zuzentzeko aukera**. Zuzenean ez baztertzea akatsaren bat ematen bada, baizik eta instantzia bat irekitzea beharrezkoak diren aldaketak egin ahal izateko.
- **Batzordeak ekimena defendatzeko aukera**, behin izapidea gaindituta eztabaidatzen denean.

- **Kontuak** maila guztietan **ematea**, oro har, eta **bereziki ekimenaren errefusatzea** argudiatzea (informazio publikoa, etorkizunerako ezagutza sortzeko moduan).
- **Aita edo amabitxiaren figura**: ekimena babesten duten diputatuak. Horrela, **elkarrizketa sortzen da, onartzen den ala ez alde batera utzita** (Brasil kasua)

### Ismael Peña-López

- Benetan balioa izan dezan, onarpena izateaz gain, sistemak balioa eman beharko lieke herritarrei, baita politikari edo legegileari ere:

#### Instantzia politiko edo legegilearentzat:

- **Deliberazioa/elkarrizketa**: zentzu horretan ekarpena egingo duen erabilgarritasun paralelo edo gehigarri bat sortzea.
- **Aktoreen mapa**: deliberazio-prozesuaren ondorioz, inbentario bat geratuko da, zeini interesatzen zaion «zer», nori sustatzen duen baino gehiago. Profilen erregistroa gera dadila, gaiak nondik hartzen dituzten, hurbilketek, adostasun-puntuak eta/edo desadostasun-puntuak. Horrela, nahiz eta ekimenak aurrera egin ez, **politikariari informazio erabilgarria geratzen zaio, eta horrek espazio desinstituzionalizatuak, espazio informalak arakatzea/ikuskatzea ahalbidetuko luke** (Brasilgo Wikilegis parlamentua: aktoreen mapa bat sortzen zen, testua idaztearen inguruko komunitatea, eta, prozesua amaitu ondoren, online jarraitzen zuen).
- Praktikan:
  - Deliberazioa trazatzea
  - Parte hartzeko tresnak/teknikak konbinatzea, aplikazioaren erabilgarritasuna hobetzeko.

#### Pertsonentzat:

- Aktoreen arteko komunikazioa:
  - Adostasun-puntuak erraztea.
  - Proposamenen negoziazioa erraztea.
  - Masa kritikoaren identifikazioa erraztea.
- Kostuaren eta etekinaren arteko bermea.
- Proposamenak sortzeko aukera
  - Elkarteez ordezkatzen ez dituztenei ordezkaritza ematea.
  - Parte-hartze informala formala bihurtzea.

## 2. Ondorioak

- Inork ez du parte hartzen parte hartzeagatik. Eragin egitea izaten da helburu.
- Izapideak egin aurretik hasi beharko litzateke.
- Benetako administrazio-laguntza.
- Tresna gisa benetazko interesa izan dezan, onarpen izateaz gain, sistemak balioa eman beharko lieke herritarrei, baina, baita, politikari edo legegileari ere.
- Bitartean gertatzen dena zaindu behar da, ez bakarrik azkenengo tramitazioa proesua. Itzulera egotea komenigarria da. Prozesuan zehar tarteko ondorioak ataretzea. Prozesuarekin batera joatea. Epe luzerako informazioa sortzea.
- Legegintzako Herri Ekimena ez da beti erantzunik egokiena/errazena/eraginkorrena.
- Batzordeek izapidetzearekin batera eragin-lana egitea (gizabidezko lobbysmoa) beharrezkoa da. Ikusi beharko litzateke nola lagundu zentzu horretan.
- Kontuan izan behar da kanpoan geratzen diren pertsonen parte-hartzea. Zergaitiak aztertzea eta erantzunak eskeini.

## 3. Eraitza

Adituek egindako proposamenak eta hausnarketak aztertu ondoren, horietatik abiatuta sortzen den sistema ideala eskema honetan ikus dezakegun moduan geratuko litzateke:

### LEGEGINTZAKO HERRI EKIMENA. ADITUEN PROPOSAMENA

